



Marijesiak lehenengo errondarako prest dira

BEDERATZIURRENA ▶ Bihar goizaldean hasi eta bederatzi gauetan ariko dira kalerik kale

OHITURA ▶ Dagoeneko, gabon aurreko «beharra» bilakatu dela dio Denis Azkarate bakarlariak ▶ 3

EGUNON!

Egunon, irakurle! BUSTURIALDEKO HITZAREN 1. zenbakia duzu eskuetan. Urriaren 31n ateratu genuen 0 zenbakia, eta gaur aurrenekoa; hemendik aurrera, astean sei bider Eskualdeko euskalgintzaren eta gizarte eragileen, eta Bertako Hedabideen (Berria-ren EKT enpresakoa) arteko elkarlanaren fruitua da. Busturialdeko herritarrei zerbitzu informatiboa eskaini gura diegu, erreferentziala eta, aldi berean, euskararen normalizazioarako tresna eraginkorra izan nahi dugu.

Euskaltzalea da proiektu hau, plurala eta orekatua, baterakoia, parte-hartzailea, independentea eta konprometitua eta profesionala. Eskualdean euskarazko komunikabideen sarea osatzen joatea da helburua. Hala, lehendabizi, egunkaria sortu dugu, kalitatekoa egin asmoz. Hori da gure konpromisoa irakurleekin eta iragarleekin eta, bide horretan, erakunde publikoen laguntza ere oso garrantzitsua izango da.

BUSTURIALDEKO HEDABIDEAK S.L.



Udalarekin hitzarmena egin du HITZAK

BERMEO ▶ Legegintzaldi honetarako akordioa sinatu zuten hilaren 2an, eta egitasmoa «egokia» dela aitortu du Goienetxea alkateak ▶ 6



Euskerearen normalizazioaren bidean
ONDO ETORRI Busturialdeko HITZA

Tel. 94 617 91 32 - 94 617 91 04 - 94 617 91 22
euskera@bermeo.org - itzulpen@hitza@bermeo.org - euskeradiaria@bermeo.org

